

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Antartikako izotza urtzean zenbat igoko da itsas maila?

ANTARTIKAREN MENDEBALDEAN dago 2.000 kilometro inguruko luzera duen Filchner-Ronne harrizko plataforma; bertan, izotzak 2.500 metroko sakonera du. Berotegi-efektuaren eraginez izotz-plataforma hori eta antzekoak urtzen ari dira une honetan, eta horrek itsas mailaren hazkundeari buruzko hipotesi ugari eragin ditu zientzialarien artean.

Orain arte egindako azterketa gehienek 5-7 metro bitarteko igoera aurreikusten dute, baina Bristol Unibertsitateko (Erresuma Batua) Jonathan Bamber-en lan-taldeak *Science* aldizkarian argitara eman duen artikuluan, itsasoaren batez besteko igoera 3,3 metrokoa izango dela diote. Ur metaketarik handiena Ipar Amerikan eta Ozeano Indiarrean gertatuko litzateke, batez ere Lurraren biraketa-ardatza aldatu egingo litzatekeelako izotza urtzearen ondorioz.



Hubble teleskopioa gutxienez 2014ra arte martxan

JOHN GRUNSFELD ETA ANDREW FEUSTEL astronautei egokitu zaie *Hubble* teleskopioan behar diren konponketak egitea, gutxienez beste bost urte irauteko. Hiru lan burutu behar izan dituzte horretarako.

Batetik, STIS espektrografoa konpontzea. STIS zulo beltzak detektatzeko eta exoplaneten kanpoko atmosfera aztertzeke erabiltzen da, eta 2004tik matxuratuta dago.

Bestetik, ACS kamera berritzea. Irudiak transmititzeko funtzioa du ACSk, baina 2007tik ez du ezer emititu. Ia kamera osoa berritu dute, baina bereizmen handiko zatiak matxuratuta segitzen du.

Azkeneko lanak bateriak berritzea, teleskopioaren orientazioa gidatuko duen hargailua ordezkatzeko eta estalki termiko berria jartzea izan dira. Amaitu ondoren, *Atlantis* espazio-ontzitik bereizi eta bere orbitan kokatu da *Hubble* berriz. Gauzak ongi, *Atlantis* maiatzaren 22an izango da Lurrean.



Zuhaitz batzuen haziek uste baino askoz luzeago irauten dute

Panamako baso tropikalean dauden zuhaitz batzuen haziek 30 urte iraun dezakete landarea jaiotze aurretik. Datuak izugarri harritu ditu zientzialariak, orain arte uste zena baino hamar aldiz gehiago baita. Merkataritze-lanak bide berriak zabal ditzake honek. <http://ttiki.com/3557>

Animalien kamuflaje-sistema kopiatzen

Animalia eta landare ugari aldatzen dute beren kolorea inguruaren arabera. AEBetako Sandiako Laborategi Nazionalen ikerlari batzuek uste dute zenbait material sintetiko erabiltu haien kamuflaje-sistema bera eduki dezaketela jantziek. <http://ttiki.com/3558>

Birusak baterietako borneen ekoizle

AEBetako MIT institutuko ikerlari talde batek, birusak genetikoki eraldatuz, litio-ioi bateria baten borne positiboak eta negatiboak eraiki ditu. Honek, batez ere, bateria kargagarrietan izan ditzake aplikazio garrantzitsuak. <http://ttiki.com/3559>



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera


web garapenak


multimedia


aholkularitza


edukiak


iametza
 interaktiboa
www.iametza.com
 T.943 37 67 16